

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5433

AGINDUA, 2020ko azaroaren 25ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2021. urtean gazteen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du gazte-politikaren alorrean. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari esleitu zizkion gazteriarekin lotuta dauden arloetan egitekoak gauzatzea.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren esparruan jarduerak sustatzeko lanetan dihardu beste zenbait erakunderekin batera. Helburu hori lortu nahian, deialdi honetan zehazten diren eremuetako batean sartzen den jarduera bat garatzea helburu duten pertsona juridikoei –publiko zein pribatuei– beren xedea gauzatzen laguntzeko bideak ezartzen dira agindu horren bitartez.

Gazteen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzen laguntzea da agindu honen helburua, eta hori da, hain zuzen ere, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak planteatzen duen beste tresna bat gazteak gizartean integratzen laguntzeko. Horrela, aukera ematen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei gazteen mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak egiteko, erakunde horiek askatasunez egindako diseinuaren arabera, sormen-ekimena murriztu lezaketen muga estu zorrotzetatik urrun.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, alde zuzeneko izapideen araubidearen mendean dagoen deialdi honen bitartez, gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduera bat garatu nahi duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak –publiko zein pribatuak– dirulaguntzez baliatu ahal izateko moduko esparru zabala diseinatu nahi dugu.

Horregatik, aintzat hartuta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua, eta kontuan hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen araudian xedatutakoa, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2021eko ekitaldian gazteen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea eta deialdia egitea, ondoren zehazten diren baldintza eta betekizunen arabera.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Aurreko artikuluan aipatutako helburua betetzera zuzenduko diren baliabide ekonomikoak aurrekontuetan xede horretarako ezarritako kredituetatik etorriko dira, eta horien guztizko zenbatekoa 145.000 eurokoa izango da.

3. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honetako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten eta 5. artikuluan zehazten diren eremuetan sustapen eta zabalkunde jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoek, publiko zein pribatuek.

4. artikulua.– Erakunde onuradun izateko betekizunak.

1.– Entitate eskatzailea dagokion erregistroan legez eratuta eta inskribatuta egon behar da.

2.– Ezin izango dituzte deialdi honetako laguntzak eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako egoeretako batean daudenak.

3.– Ezingo dute deialdi honetako dirulaguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalen bat duten pertsona fisiko zein juridikoek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren bat dutenek ere, sexu-bereizkeriaren ziozko zigor administratibo edo penalak barnean hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

4.– Erakunde onuradun izateko eta bertan jarraitzeko, dirulaguntza likidatu arte, erakundeak egunean izan beharko ditu indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.

5.– Edozein kasutan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.4 artikulua arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartua), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo erakunde autonomiadunak ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei dirulaguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

6.– Udalei dagokienez, onuradun izateko, bikoiztasunik ezari eta finantza-jasangarritasunari buruzko aldeko txostenak eskuratu beharko dituzte, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzen duen ekainaren 25eko 93/2019 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Mankomunitateen eta toki-erakundeen beste elkarre-formula batzuen kasuan, txosten horiek, lehen adierazi den moduan, mankomunitate horiek osatzen dituzten udal guztiei dagokienez lortu beharko dira.

5. artikulua.– Diruz lagunduko diren programak edo jarduerak.

1.– Honako eremu hauetan egiten diren jarduera zehatzak eta urteko programak lagundu ahal izango dira:

a) Gazteen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak.

b) Gazteen arteko mugikortasun eta elkartrukearekin loturiko lurraldez gaindiko sustapen, zabalkunde edo prestakuntza-jarduerak.

2.– Deialdi honen ondorioetarako, gazteen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jardueratzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko gazte-taldean artean egiten direnak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Jardueren hartzaileak 12 eta 30 urte bitarteko gazteak izatea.

b) Interes orokorreko gaiak izatea, garrantzitsuak parte hartzaileentzat. Jardueren gai-kontzeptuak argia behar du izan, parte-hartzaileek batera lantzeko erakargarria. Gaia adostasunez aukeratu behar da, eta parte-hartzaileen interesak eta beharrak bildu behar ditu. Gaia gazte-trukaketaren eguneroko jardueretan islatu behar da.

c) Ikaskuntza ez-formalaren metodoak aplikatzea. Jarduerak gaitasunak eskuratzea edo hobetzea izango dute helburu (ezagutza, trebetasunak eta jarrerak), hartara garapen pertsonala, gizarte-heziketakoa eta profesionala lortzeko, ikaskuntza ez-formal eta informalaren bitartez. Jardueren abiapuntuan, sormena, parte-hartze aktiboa eta ekimena (gogo ekintzailea) sustatuko dituen ikaskuntza-prozesua egongo da. Ikaskuntza-prozesu hori mugikortasun edo elkartruckerako jarduera osoan zehar planifikatu eta aztertu behar da: hausnarketarako espazio bat eskaini behar zaie parte-hartzaileei, ikaskuntzarekin loturiko esperientziez eta emaitzez gogoeta egiteko.

d) Parte-hartzaileen inplikazio aktiboa proiektuan. Eguneroko jarduera-programak eta lan-metodoek ahalik eta inplikaziorik handiena sorrarazi behar dute parte-hartzaileen artean, eta ikaskuntza-prozesurako akuilua izan. Parte-hartzaileak inplikatuta egongo dira, baita ere, proiektua prestatzeko eta ebaluatzeko faseetan.

e) Parte-hartzaileen garapen soziala eta kulturala sustatzea. Jarduerak lagundu egin behar diete parte-hartzaileei beren buruan ziurtasuna izaten, horrela esperientzia, jarrera eta jokatze berriei aurre egiteko; eta lagundu behar diete beren garapen soziala edo pertsonala sendotuko duten trebetasunak, gaitasunak eta ezagutza eskuratzen edo lantzen.

f) Kultura-artekotasuna. Mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak gazteek beste kultura batzueganako duten sentiberatasun positiboa areagotu behar dute, eta ingurune eta kultura ezberdinetatik datozen gazteen arteko elkarrizketa eta kultura-arteko elkarguneak bultzatu behar dituzte. Horretaz gainera, laguntza eman behar dute aurreiritziak, arrazismoa eta bazterkeriak prebenitzen eta horiei aurre egiten, eta, aldiz, tolerantzia eta dibertsitatearen ulerbideak zabaltzen.

g) Europartasuna eta nazioartekotasuna. Mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak balio behar dute gazteen hezkuntza-prozesua indartzeko eta haiek bizi diren ingurumari europarrekiko eta nazioartekoarekiko kontzientziazioa handitzeko.

h) Iraupena. Trukaketa-jarduera bakoitzaren iraupena (bai joanekoa, bai harrerakoa) 6 eta 21 egun artekoa izango da; egun jarraituak, alegia. Horretan ez dira zenbatuko prestakuntza-egunak, trukaketaren destinorainoko bidaia, ezta jarduerak ebaluatzeko fasekoak ere.

i) Parte-hartzaileen kopurua. Talde bakoitzetik gutxienez 6 partaide egongo dira, eta gehienez 15. Dena den, gehienezko kopurua 60koa izango da. Talde bakoitzak, gainera, monitore bat izango du gutxienez; monitore-kopurua, baina, gehienez ere lau pertsonako bat izango da, salbu eta parte-hartzailearen baten beharrezan espezifikoa direla eta monitore gehiago behar direla justifikatzen bada.

3.– Deialdi honen ondorioetarako, gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartrukearekin loturiko sustapen, difusio edo prestakuntza-jardueratzat hartuko dira EAEn egiten diren mintegi, prestakuntza-ikastaro edo zabalkunde-kanpainak, baldin eta hartzaileen artean etorkizunean bestelako mugikortasun edo elkartruke proiektuak egiteko xedea badute. Jarduera horiek lurraldez gaindikoak izango dira, hau da, lurralde historiko bateko baino gehiagoko hartzaileak izango dituzte jomuga. Hori dela eta, ustekabe hutsez lurralde historiko bateko baino gehiagoko parte-hartzaileak egoteak berak ez du esan nahi jarduerak lurraldez gaindikotzat har daitezkeenik.

4.– Eskaera batean berez izaera aldetik ezberdinak diren jarduera bat baino gehiago sartzen badira, banaka-banaka adierazi beharko da zeintzuk diren jarduera bakoitzaren helburuak, hartzaileak eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua. Horretarako, izaera aldetik ezberdintzat joko dira, xede edo hartzaile ezberdinak dituzten jarduerak ez ezik, finantzabide propio eta bereizi bat edo gehiago dituztenak ere.

6. artikulua.– Bazterketak.

Agindu honen aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen dira jarduera hauek:

- a) Ikasketa akademikoetarako bidaiak.
- b) Etekin ekonomikoa bilatzen duten elkartruke-jarduerak.
- c) Turismotzat jo daitezkeen elkartruke-jarduerak.
- d) Jaialdietan parte-hartzea edo jaialdietara bertaratzea.
- e) Opor-bidaiak.
- f) Hizkuntza-ikastaroak.
- g) Ikuskizun-birak.
- h) Eskola-elkartrukeak.
- i) Kirol-lehiaketak.
- j) Erakundeen arauzko bilerak.
- k) Bilera politikoak.
- l) Auzolandegiak.
- m) Autofinantzaketa kostu osoaren % 30 baino txikiagoa denean, hau da, erakunde eskatzaileak jarduerara bideratuko dituen diru-sarrera propioak jarduera horren aurrekontu osoaren % 30 baino txikiagoa denean. Diru-sarrera propiotzat hartuko da administrazio publikoak partaide ez dituzten entitate pribatuek emandako diru-ekarpenak.
- n) Gainfinantzaketa ezabatze aldera eskatutako diru-kopurua zuzentzearen ondorioz kopuru hori erabat desagertzen denean. Gainfinantzaketatzat hartuko da aurreikusitako gastuak gainditzten dituen aurreikusitako diru-sarreraren zatia (eskatutako dirulaguntza guztiak barne).
- o) Funtsezko ezaugarriak zehaztugabe dituzten jarduerak; hau da, helburuak, jarduera-programa, non egingo diren, egikaritze-egutegia, hartzaileak edo aurrekontua zehaztugabe dituzten jarduerak.

7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta aurrekontua.

1.– Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira: diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak eta deialdi honetan ezarritako epean, emakida-ebazpenean edo litezkeen aldaketetan egiten direnak. Diruz lagun daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ez da, inola ere, merkatuko balioaren gaintekoa izan ahal izango.

2.– Gazteen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jardueretan, honako gastu hauek baino ez dira diruz lagunduko:

a) Eskaera egiten bada bakarrik gazteak Europar Batasuneko beste eskualde edo estatu batzuetara bidaltzeko, diruz laguntzeko modukotzat joko dira EAEko gazte-taldeari dagozkion bidaia-gastuak, jarduerak prestatzeko eta egitekoak, eta proiektua gauzatzen den tokiko ostatu- eta mantenu-gastuak.

b) Eskaera egiten bada bakarrik Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetako gazteak hartzeko, diruz laguntzeko modukotzat joko dira gazte haienzako jarduerak prestatzeko eta gauzatzeko gastuak, eta ostatu- eta mantenu-gastuak ere.

c) Eskabide berean EAEko gazte-talde bat kanpora bidaltzeko eta Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetako gazteak hartzeko laguntza eskatzen denean, diruz laguntzeko modukotzat joko dira bai EAEko gazte-taldea bidaltzeko bidaia-gastuak bai Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetako gazteak Euskadin hartzeko gastuak ere; alegia, haienzako jarduerak prestatzeko eta gauzatzeko gastuak eta ostatu- eta mantenu-gastuak.

d) Aurreko hiru kasuetan, honako muga hauek hartuko dira kontuan:

1) Bidaia-gastuak direla eta, jatorrizko herrialdetik jarduerak egiten diren tokirainoko joan-etorriko bidaia hartuko da aintzat, eta bitarte eta tarifa merkeenak erabiliko dira.

2) Jarduera prestatzeko eta egiteko gastuei, ostatuari eta mantenuari dagokienez, pertsonako eta gaueko gehieneko kopuru bat ezartzen da, jarduera egiten den herrialdearen arabera, agindu honen IV. eranskineko taulan xedatutakoaren arabera.

3.– Tributuei loturiko diru-zenbatekoak diruz laguntzeko modukotzat joko dira, eskatzaileak berak benetan ordaintzen dituenetan eta berreskuratu edo konpentsatu ezin badira.

4.– Ez da laguntzarik emango entitate eskatzailearen zeharkako gastuetarako edo egitura-gastuetarako.

5.– Halaber, ez da laguntzarik emango inbertsio-gastuekin lotutako diru-kopuruak ordaintzeko.

6.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzeko zereginaren % 50 azpikontratatu ahal izango du gehienez, beti ere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan ezarritakoa jarraituz.

7.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioari dagokionez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada (BEZik gabe), onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua emateko, hornitzeko edo materiala entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen dituzten behar besteko hornitzaile kopururik ez badago, edo, salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada. Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean. Gainera, eskaintzak justifikazioan aurkeztu beharko dira.

8.– Artikulu honen arabera ez laguntzeko moduko gastutzat jotzen diren horiek agertzen badira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan, edota laguntzeko modukoak izanik ere ezarritako muga gainditzen badute, Balorazio Batzordeak ezabatu edo araztu egingo ditu gastuok, dirulaguntza kalkulatzeko beharrezkoa den oinarriko gastu-aurrekontua zehaztu ahal izateko.

8. artikulua.– Dirulaguntzen izapidetzea.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko telematikoak erabili beharko dituzte prozedura horren izapide guztiak eskatu, zuzendu, justifikatu eta egiteko.

2.– Izapideak elektronikoki egiteko argibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan eskura daitezke, helbide honetara sartuta: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0102408>

3.– Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

4.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako egiaztagiriek batera. Halaber, eskatzaileak aukeratzeko duen hizkuntza hori erabiliko da eskabidearen ondoriozko jarduketetan eta prozedura osoan, Euskararen Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

5.– Eskabidea ordezkari baten bidez ere izapidetu ahal izango da, elektronikoki. Horretarako, ordezkaritza Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

9. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea, 10. artikuluan adierazitako erantzukizunpeko adierazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan eskuragarri dagoen inprimaki normalizatuan beteko da. Eskabidearen edukia I. eranskinean dago jasota.

2.– Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proiektuari buruzko memoria zehatza, programa edo jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko helbide honetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0102408>. Memoriaren edukia II. eranskinean dago jasota

b) Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren txartelaren fotokopia.

c) Erakundeari dagokion erregistroan egindako inskripzioari buruzko ziurtagiri eguneratua.

d) Izaera juridikoaren arabera, dagokion erregistroan inskribatutako azken estatutuen kopia.

Entitate eskatzaileak dokumentu horiek aurretik aurkeztu baditu administrazio honetan, eta indarrean egonez gero, ez da beharrezkoa izango berriz ere aurkeztea. Kasu horretan, Administrazioak ofizioz berretsiko ditu. Horretarako nahikoa izango da dokumentu horiek zein zuzendaritza edo sailtan aurkeztu ziren adieraztea.

3.– Dekretu honen 4.6 artikulua arabera, udalek bikoiztasunik ezari eta finantza-jasangarritasunari buruzko aldeko txostenak aurkeztu beharko dituzte, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzen duen ekainaren 25eko 93/2019 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

4.– Halaber, proiektua hobeto baloratzeko entitate eskatzaileek egokitzen jotzen duten beste edozein dokumentu ere aurkeztu ahalko da.

5.– Espedientea osatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eskatu ahal izango dizkio Gazteria Zuzendaritzak entitate eskatzaileari, eta entitateak aurkeztutako datuak egiaztatzekeo behar dena egin ahalko ditu.

10. artikulua.– Entitate eskatzaileen betebeharrak eta betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskaera aurkezteak organo kudeatzaileari baimena ematea dakar, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela automatikoki egiaztatzekeo, eskatzaileak baimen hori emateari berariaz uko egiten dionean izan ezik. Kasu horretan, onuradunak aurkeztu beharko ditu Ogasun administrazio-erakundeek eta Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiriak. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatuko da dirulaguntza ematean eta dagozkion ordainketak egitean.

2.– Eskatzaileak baimena eman ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak gainerako datu edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatu ditzan, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

3.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.1 bis artikuluan xedatutakoa aplikatuz, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da eskabide normalizatuan honako baldintza hauek betetzen direla:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan onuradun izateko adierazitako debekurik ez izatea.
- Ez duela administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez duela dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta deialdia ebazteko unean izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan sartuta ez egotea. Bestela, dagozkion prozedura edo prozedurak adierazi beharko dira.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrean egunean egotea.
- Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, jaso direla adieraztea, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.
- Halaber, erakunde eskatzaileak adierazi beharko du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak.

Erantzukizunpeko adierazpen bati eransten zaion datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, gerta daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak aparte utzi gabe. Gainera, gorago azaldutakoa adierazteko ematen duen ebazpenean Administrazio Publikoak ezarri ahal izango du interesdunak dirulaguntza itzuli behar duela, bidezkoa izanez gero.

11. artikulua.– Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, interesdunari modu telematikoa eskatuko zaio akats hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko hamar egun baliodunen epean. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez. Zuzenketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» ren bidez egingo da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Eskabidea aurrez aurre eta paperean aurkezten bada, interesdunari adieraziko zaio elektronikoki aurkeztu behar duela. Ondorio horietarako, eskabidea bide horretatik egin den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

12. artikulua.– Dirulaguntzak emateko eta kuantifikatzeko prozedura.

1.– Deialdi honi lehiaketa bidez emango zaio ebazpena. Dirulaguntzak emateko, ezarritako epearen barruan aurkeztu diren eskaera guztiak alderatu egingo dira eta lehentasun-hurrenkera baten arabera sailkatuko dira, 14. artikuluan ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideei jarraituz. Nolanahi ere, laguntza jasotzeko beharrezkoa izango da 40 puntutik gora jasotzea. Kasu bakoitzean eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, Balorazio Batzordeak eskatutako zenbatekoaren ehuneko jakin bat ematea proposatuko du; hain zuzen, ezarritako irizpideak aplikatu ostean lortzen diren puntuen arabera izango da ehuneko hori. Ehunekoa lortzeko formula hau aplikatuko da:

$$100 \times (\text{puntu-kopurua}-40) / 20$$

Lortutako puntu-kopurua 60 edo gehiago denean, eskatutako zenbateko osoa ematea proposatuko da. Dena den, beti bete beharko da 15. artikuluan dirulaguntzen zenbatekoei eta mugei buruz ezarritakoa.

Lortutako emaitza zenbaki hamartarra bada, hurbilen duen zenbaki osoarekin biribilduko da.

2.– 2. artikuluan deialdiari esleitutako hornidura ekonomikoa ez bada nahikoa artikuluko honen aurreko puntuan aurreikusitakoaren arabera hasieran kalkulaturako laguntzak osorik ordaintzeko, laguntza horiek murriztu egingo dira. Hala egiten bada, azkenean ezartzen diren zenbatekoek, aipaturako hornidurarekin lotuta, bete egin beharko dute horiek aurrera eramanez izateko hasieran kalkulaturako zenbatekoan kopuru orokorrarekiko zuten proportzioa.

3.– Dirulaguntzak emateko egiten duen proposamenean, Balorazio Batzordeak laguntzeko jarduerak eta baztertzekoak aipatuko ditu banaturik. Eskabide berean izaera ezberdinetako jarduerak badaude eta denak laguntzen ez badira edo denak baztertzen ez badira, hots, Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerak jasoko duen laguntza eta zeinek ez.

13. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Aurkeztu diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Hauek izango dira kideak:

- Batzordeburua: Josu Gerediaga Egurrola, Gazteriako arduraduna.
- Bokala: M.^a Jesús Emazabel Lekuona, Gazteriako teknikaria. Ordezkoa: Beñat Martínez Castillo, Gazteriako teknikaria.

– Bokala: Agurtzane Iriondo Goti, Gazteriako teknikaria; idazkari moduan jardungo du. Ordezkoa: Lourdes Ramírez de Ocáriz, Gazteriako teknikaria.

2.– Eskarien azterketa eta ebazpen-proposamena: 14. artikuluan aipatzen diren balorazio- eta esleipen-irizpideak kontuan hartuta, Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Gazteriako zuzendariari.

14. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Eskabideek lortzen duten puntuazioa, 12.1 artikuluan aipatua, jarraian adierazten diren irizpideak aplikatzearen ondorioz eskuratutakoa izango da:

1.– Entitate eskatzaileak jarduera horretarako dituen sarreraren eta jarduerarako aurrekontu osoaren arteko proportzioa; eskatzailearen baliabideak portzentaje handiagoan baloratuko dira, ondorengo eran, gehienez ere 10 puntu:

- 1) % 30etik % 40ra bitarteko autofinantzaketa, 0 puntu.
- 2) % 40tik gorako eta % 60ra bitarteko autofinantzakeeta, 5 puntu.
- 3) % 60tik gorako autofinantzaketa, 10 puntu.

2.– Jardueraren egokitasuna. Jardueraren xedeak argi zehaztuta dauden, errealistak diren eta gazte onuradunen beharren azterketan oinarrituta dauden hartuko da kontuan. Gehienez ere 15 puntu.

3.– Proiektuaren diseinuaren eta ezarpenaren kalitatea. Proposatzen den proiektuaren fase guztien (prestakuntza, jarduera gauzatea eta ebaluazioa) argitasuna, zehaztasuna eta kalitatea hartuko dira aintzat, bai eta nahi diren emaitzak lortzeko metodologia errealista eta egokia erabil dadila ere, edota proiektuaren xedeen, proposatzen diren jardueren eta jarduerak egiteko aurrekontuaren artean koherentzia egotea ere. Era berean, gazte parte-hartzaileen babesa eta segurtasuna ziurtatuko dituzten neurri zehatzak egotea ere kontuan hartuko da, eta proiektua bera zein proiektuaren emaitzak jasangarriagoak izatea ahalbidetuko duen azken ebaluazio-prozesua egotea. Gehienez ere 25 puntu.

4.– Euskararen erabilera programa edo jarduera garatzean, bai giza baliabideen alorrean, bai baliabide materialen alorrean. Gehienez ere 12,50 puntu:

- 1) Proiektuaren garapenean ez dago euskararen erabilera bermatuko duen berezko neurririk, 0 puntu.
- 2) Euskararen presentzia ziurtatzen duten ekintzen kopurua proiektuan jasotako jarduera guztien % 50etik beherakoa izatea, gehienez ere 2 puntu.
- 3) Euskararen presentzia ziurtatzen duten ekintzen kopurua proiektuan jasotako jarduera guztien % 50a izatea, gehienez ere 5 puntu.
- 4) Euskararen presentzia ziurtatzen duten ekintzen kopurua proiektuan jasotako jarduera guztien % 50etik gora eta % 100etik behera izatea, gehienez ere 10 puntu.
- 5) Proiektua bere osotasunean euskaraz garatzen da, gehienez ere 12,5 puntu.

5.– Generoaren ikuspegia, hots, proiektuaren garapenean sistematikoki aintzat hartzea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta beharizan ezberdinak, ezberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea zuzendutako helburu eta jarduketa zehatzak txertatuz. Gehienez ere 12,50 puntu.

6.– Jardueren parte-hartzaile eta onuradunen gutxi gorabeherako kopurua eta profila. Horretarako, jardueren parte-hartzaile eta onuradunen kopurua baloratuko da, bai eta aukera gutxien dituzten gazteek horietan parte hartzea ere; hau da, egoera sozial, ekonomiko, hezitzaile, kultural edo geografiko ahuleko gazteek, edo jarduerak egitea eragozten ez dien desgaitasunaren bat duten gazteek. Gehienez ere 15 puntu.

7.– Proiektuaren inpaktua eta hedapena. Proiektuak parte-hartzaileengan, erakundeetan eta garatuko den inguruan eduki dezakeen inpaktua baloratuko da, edota emaitzak hedatzeko nahiz ustiatzeko aurreikusten diren neurrien egokitasun eta kalitatean. Gehienez ere 10 puntu.

1) Proiektuaren inpaktua eta emaitzak hedatzeko eta ustiatzeko neurriak ez dira garatzen, 0 puntu.

2) Proiektuaren inpaktua eta haren emaitzen hedapena eta ustiapena proiektuan jasotako jardueretan parte hartzen duten pertsonentzat baino ez dira; gehienez ere 3 puntu.

3) Proiektuaren inpaktua eta haren emaitzen zabalkundea eta ustiapena parte-hartzaileen eremutik gorakoa da, eta oro har, gazteen kolektiboari edo gazteriaren eremuan jarduten duten beste erakunde batzuei eragiten die; gehienez ere 5 puntu.

4) Proiektuaren inpaktua eta haren emaitzen hedapen eta ustiapena herritar guztiengana iristen da; gehienez ere 10 puntu.

15. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Onartutako aurrekontuan diruz lagun daitekeen gastuaren % 70era artekoak izan ahalko dira deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak, baina inola ere ezingo dute ehuneko hori gainditu.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, deialdi honen babesean entitate eskatzaile bakoitzari emandako dirulaguntzen guztizkoa ezingo da izan 50.000 eurotik gorakoa.

16. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berbererako emandako laguntza edo diru-sarrerak batera erabili daitezke; betiere, 6.m) artikuluan aurreikusitako autofinantzaketa errespetatuz eta gainfinantzatzea ez badakar. Gainfinantzaketa gertatuz gero, eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekotik murriztu egingo da dagokion kopurua, gehienezko mugara iritsi arte.

17. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzea.

Gazteriako zuzendariari dagokio agindu honen bidez araututako dirulaguntzak kudeatzeko egin beharrekoak egitea.

18. artikulua.– Ebazpena.

1.– Gazteria zuzendariak deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena emango du, Balarazio Batzordearen proposamena ikusi eta gero.

2.– Ebazpen hori entitate interesdun guztiei jakinaraziko zaie, sei hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta biharamunetik. Jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «nire karpeta» ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Ebazpen horrek administrazio-bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete hierarkian goragoko organoari, hilabeteko epean, Ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrita. Era berean, emandako dirulaguntzen eta erakunde onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, guztiek horren berri izan dezaten.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako sei hilabeteko epe hori amaituta erakunde interesdunak jakinarazpenik jaso ez badu, eskatutako dirulaguntza ezetsizat jo ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta.

19. artikulua.– Dirulaguntza jasotzen duten entitateen betebeharrak.

1.– Agindu honen xede diren dirulaguntzen erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50 artikulua 2. paragrafoan xedatutakoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. eta 46. artikuluetan adierazitakoak betetzea, batez ere honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek berriaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

b) Dirulaguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura jasotako laguntza eta dirulaguntzei dagokienez, Gazteria Zuzendaritzak egingo dituen egiaztapen-jarduerei eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion kontrol-jarduerei men egingo zaio, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi espezifikoak aurreikusten dituen ere.

d) Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gazteria Zuzendaritzaren babesa berriaz eta argi aipatzea, diruz lagundutako jardueraren dela-eta dirulaguntza jaso dutela jakinarazten dien ebazpena jasotzen dutenetik aurrera egiten dituzten programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen dituzten gainerako material grafiko zein soinudunetan, zeintzuk Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatuak izan beharko baitute. Gainera, diruz lagundutako jardueraren ondorioz sortzen diren liburu, liburuxka edo kartelen ale bat aurkeztu behar dute beren kontura edo, bestela, horien kopia euskarri fisiko edo magnetikoan, materialaren izaera edo euskarriaren egokitasunaren arabera. Betebeharrak honetatik salbuetsita egongo dira behin jardueraren bukatuta eskabidea aurkeztu eta dirulaguntza jasotzen duten erakundeak, baita dirulaguntza eman zaiela jakinarazten dien komunikazioa behin jardueraren bukatuta jasotzen duten erakundeak ere.

e) Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea organo kudeatzaileari.

f) Diruz lagundutako jarduketara, programa edo zerbitzuetan gorabeheraren bat gertatuz gero, organo kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio. Organoak, hala dagokionean, behar diren egoitzapenak egingo ditu, indarrean dagoen araubidearen arabera.

2.– Administrazioak dirulaguntzen ordainketa egin ahal izateko, erakunde eskatzailea Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuna Sailaren Hirugarrenen Erregistroan jasota egon beharko da.

Erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuna Sailaren Hirugarrenen Erregistro Telematikora jo beharko du alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, honako helbidean <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

20. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) Lehenengo zatia, hau da, emandako dirulaguntzaren ehuneko berrogeita hamar, 19.1.a) artikuluan ezarritako epea igaro ostean, baldin eta onuradunak dirulaguntzari berariaz uko egiten ez badio epe horretan.

b) Bigarren ordainketa, emandako dirulaguntzaren erabilera Gazteria Zuzendaritzan justifikatu ondoren egindako likidazioaren ondoriozko zenbatekoa, hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, dirulaguntza ordainketa bakar batean ere eman ahal izango da, 18. artikuluan aipaturiko Gazteriako zuzendariaren ebazpenaren ondoko bi hila-beteetan, betiere eskabidearekin batera aurkezten bada jardueraren aurrekontuaren exekuzioa egiaztatzen duen dokumentazioa, agindu honen 21. artikuluan xedatutako eran justifikatuta.

2.– Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen eta dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozedura amaitzeak baldintzatuko du dirulaguntzen ordainketa.

Era berean, ez da inolako ordainketarik egingo onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzulketa-ebazpen baten ondorioz zordun bada.

21. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

